

SEBER ALTUBE HAUR-JALEAZ (JOSKERA ETA LITERATURA BIDE)

*Haur bat jan nezan,
haur jale deitba nentzan*

Zalgize, Atsotitzak

0.- Adiskide baten gonbita jaso dut gure klasikoek aditz eta perpausekin egiten dituzten makurkeriei buruz zerbait presta dezadan. Aspaldiko auzi ebatzigaitzak argitze aldera, itxuraz, euskal joskeraren inguruko eztabaida berpiztu nahi dute benazko mintegiren baten itzalpean.

Badaezpada ere, azkar asko ulertarazi diot lagunari nik baino hamaika aldiz hobeto bete dezakeela lan hori beste hainbait tek. Eta bai, erraz konbentzitu da literaturaren arlokook despistete gehiegirekin aritzen garela horrelako kontuei gagozkiela.

Argudioak argudio, ez da hori izan, gainera, nik jorratutakoen arteko gaia eta ez, ezta urrundik ere, nire lanen lehengaia (are gutxiago XX. mendekoa izanik!), nahiz eta jakin ongi dakidan ez dagoela, polemika piztu nahi bada behintzat, neofito mutxurdin bat hitz egiten jartzea bezalakorik: ziur ez dela orduan saltsa eta piperrik faltako.

Nolanahi ere, egia da gaztaro urrunean arreta eta –zergatik uka?– bozkario bereziz irakurri nituela gai horiei *Erderismos* liburuan eskaini zitzaizkien orrialdeak. Eta agian arrazoi horrek berak bulkatu nau orain hona, mintzategira gabe, nirea ez den gaia, eta erdi zeharka bada ere, idatziz ukitzera. “Argumentazio antierderista soil eta *pueri!*” hura hain gogoz irakurri izanagatik, nonbait, neure burua onbideratzen hasteko garaia iritsi zaidala esaten ari zait sinderesi amorragarria.

Erantsi beharko nuke, hoben pertsonala ozarki arintzearen, Txillardegiren *Euskara batua zertan den* liburuari egotz dakiokela orduko zenbait gazte Altubezale bilakatu izanaren benetako errua, haren gonbit bihurrian baitautza, oro har, gutako askoren kar larri horren erroak:

Euskaltzaindiak besterik edo zehatzagorik eman artean, [...] on luke irakurle ikasi-nahiak Altubereren *Erderismos* liburu-
ra jotzea. [...] Altubereren liburua dugu gaur bertan ere euskal
joskerari buruz inoiz argitara den osoena eta seguruenena (La-
rresoro 1974, 101-103).

Baina norberaren barne-liskarrak gorabehera, munduan ez da ez dakienik oso tirabiratarara emanak garela euskaldunok, eta batik bat, zer esanik ez, solasgaia hizkuntzaren ingurukoa denetan: berehala azaltzen dira orduan artzainak eta gaztak, irastuak, trumoiak eta oinazturak.

Ohikoa da, ildo horretan, honantz hurrerarazi gaituen auzi sintaktiko popularraren gisakoak piztean, feriako panpina, hasiera-hasieratik pilotakadaren batez ikonoklasta guztiok kolpatu nahiko genukeena, aipatu *Erderismos* horren egilea gertatzea. Altube delakoa, alegia. Hau da, Seber Altube Lertxundi arrasatearra (1879-1963)¹.

1.- Luze joko luke Altubek 1919an (*De syntaxis euskérica*), 1929an (*Erderismos*) eta, tipoa mantentzeko, geroago ere ida-

¹ Sarri askotan kritikaren esparruan Altube eta Azkueren izenak eta eginak parekatu egiten badira ere, ez dirudi zilegi denik haien planteamenduak bat eta bakarra izan balira bezala agertzea, Azkue bezain kartsu agertzen zaigu-eta Altube zuhur. Honek, berbarako, ez zituen onesten Azkueren “gehiegikeria” linguistikoak. Adibide nabarmena dugu “erderatiko itzen” auzi gisakoa. Honela mintzo da Altube Azkuek lexikorako proposatutako garbitze-ezabatzeaz: “Olako esate ta egite neurrigabeak’ asko tratatu dute euskal-literaturaren edakuntza” (1960, 330). Lehen hurbilketa-hipotesi edo susmo modura, bada, zentzuzkoago izan liteke pentsatzea “erderatiko itzak” euskal hiztat hartzeko gertu zegoen idazleak ez oso urruneko sentsibilitatea izan behar zuela erdaratik etorritako eta mende luzetan barrena euskaran errotutako joskera-moldeei zegokienez ere.

tzi zituenen ondorioz jaso izan duen ospearen bidea zehazteak. Eta ospea diogunean, ospe ospela esan nahi dugu, zeren eta so egitea baino ez baitago argi ikusteko zein lazki harrikatua izan den gure artean –bizitza saiatu, desinteresatu eta emankor baten hondarrean zenetik orain arte, bederen–, besteak beste, pentsatu nahi genuke, euskararen baitan efektu zentripetoa besterik bilatzen ez zuten proposamen haiek hala-hola ulertu –nahi?– izan direlako.

Eta haren kritikariei jaramon eginez gero, bai, balirudike Altubek estutxo heldu ziola euskal joskeraren muinari. Eta horren lekuko ukaezin bide dira hark darabilen lexikoa ere, berdin baliatzen baita “lege” hitzaz nola “precepto”, “regla”, “corrección” eta bestelako berba hertsagarri. Baina guztiarekin ere, euskararen senaren eskema orokorraren aurkikuntza-konbikzioaren defentsa itsua baino gehiago, gutako ez gutxiri iruditzen zaigu euskararen barne-mekanismoak ulertzeko ahalegintzat interpretatu beharko litzatekeela harena, “pensar en euskera” bilatzen baitzuen arrasatearrak eta ez “dejarse arrastrar por la influencia del erdera” (ikus 1919: 1920, 10).

Euskararen preserbaziora leramaketen mekanismoak ulertzeko saiakera sakona eta huraxe hedatzeko proposamen zintzoa, hortaz, Altuberena, eta ez, batzuen hitzek iradoki bezala, sargentu txuskero baten handinahiak sortutako zigor-artefaktua.

Irakurleak gogoratuko duenez, Altube babesle nagusi (“socio protector”) izan zuen *Euskal-Esnalea* aldizkariaren lehen alean bertan argi islaturik geratu zen joskerarekiko kezka, kezka larria; eta horixe izan zuen aldizkariak –berau sustatzen zuten euskaltzale guztiak, esan nahi baita– aurren-aurreneko xedea²:

Orain geyegi luzatu gabe, esan dezagun zer izango dan EUSKAL-ESNALEAREN LANA: Lenengo zatiya: IZKUNTZAZ.-*Emen mintzatuko gera Euskerazko itz, eta batez ere itzen joskeraz. Joskeraz beintzat, eta ¿bai al dakizute zergatik? Euskal-*

² Aldizkarirako proiektaturik zeuden zortzi ataletatik garrantzizkoena –lehena, alegia– nagusiki joskerari eskainia izango zela iragarri zen.

joskeraz euskaldunik geyenak (agiyan guztiyok) osoro aztuta bizi geralako. Itz banakaz asko ta askok egin dute lana; guk ere egin nai genduke; bañan *itzak itzekin jostez, nai ta nai ez aurrenetik beintzat, geigo egin bearako* (*Euskal-Esnalea* 1908/01/15, 2; gurea da letra etzana [aurrerantzean: g.l.e.]).

Geroak nola astinduko zuen igarri ere gabe, horixe bera jarri zuen Altubek ikusmiran bere urterik emankorrenetan. Eta horrekin tinko uztarturik, nola ez, ezin bereiz zekioken beste zerbait gehiago ere bai³, hots, bertako hizkuntza erroetaraino kutsatzen, itxuraldatzen eta deuseztatzen⁴ ari ziren presio alienigenei⁵ gotor aurre egiteko erabakia⁶.

Jakina, euskaran berezkoen eta funtsezkoen irizitako egiturak ziurtatzeko eta teorikoki finkatzeko xede hartatik atera zen gero *Erderismos* saio, sakon eta umotua izan arren⁷, ma-

³ Posiblea ote desagertzera doala sentitzen duen Herri batek (“un peuple qui s'en va”, iragarria zuen E. Réclus geografoak euskaldunoz, Altube jaio baino hamabi urte lehenago [1867]) bere hizkuntzaren egoera latza ahaztu eta gramatika-ariketak laborategi hotz bateko era puru eta aseptikoan egiten jardutea? S. Zizek-ek dakarren hiru zuri eta bi beltzen txiste filosofikoan islatzen den hoztasun arrazionala gogoraziko luke horrek (2014).

⁴ Honela ikusten baitzuen Altubek egoera: “[...] *erdal-kutsuz* eritua degu [...] euskal-sintaxis ori” (Altube 1960, 330). “*Benetako osasuna duten eta galtzeko arriskurik ere ez duten izkuntzek*” ez tute gramatika arazoetan, euskaldunok bezela, idazleen buruak nekatzen ekin bearrik” (1960, 331; g.l.e.). “*Erderak ito bearrez* darabilzkigun syntaxis legeak” (1956, 6; g.l.e.). Gogoratu behar da, halere, kutsadura-efektuak –ondo azpimarratzen du hori arrasatearrak– “euskaldun eskolatu” bitartez bideratzen eta artikulatzen direla euskal munduan (ik. 1960, 330).

⁵ Hizkuntzaren esparruan “erderismo” sintaktikoak omen presio horien ondorioz larriena: “Los erderismos más graves y frecuentes empleados por los escritores euskaldunes, son sin disputa, los que se refieren a la sintaxis” (1929: 1975, 1). Ez gara, bestalde, originalegiak “alienigena” hitzaren erabilerari dagokionez, bai Azkuek eta bai Altubek aski gogoko baitzuten terminoa (ikus, esaterako, Altube 1929: 1975, 228).

⁶ Altubek premiazko jotzen zuen “conciencia nacional”-arekin lotua, alegia (ik. 1949, 184).

⁷ Honela mintzo zen Krutwig, esaterako, hartaz: “Ongi legoke Altubetar Seber eta berze grammatikalariek euskararen syntaxiari buruz egin dituzten ikher-

darikatua. Luzaz madarikatua, agian defentsa hertsiaeren faktorea izan delako idazlanaren izenburutik⁸ nabarmenen isurarazi nahi izan dena. Horrexegatik, hain zuzen, hartu nahi izan da Altuberen lana oroz gain kolonizatzaile gisara bizi zen/zuen hizkuntz eredu batetik zetorkion oldarrari aurre egiteko saio hustzat, saio huts eta, batzuen ustez, hutsaltzat⁹.

Eta agian horrexegatik ez zaio barkamenik xumeena ere opatu.

2.- Aurrera baino lehen, dena den, *escurts[i]o* bat egiteko baimena luzatu nahi nioke neure buruari. Izan ere, Altuberena mahairatzean, haren garaikide ospetsuago baten kasua etorri zait gogora, 1922an Fisikako Nobel saria jaso zuen Niels Bohr-ena (1885-1962), hain zuzen.

Euskaldunaren eta daniarraren arteko urrun-hurbilak guxtiatsi gabe bada ere, ezaguna da ikerlanak ez ezik, azken honen inplikazio pertsonala ere ezin handiagoa izan zela Bigarren Munduko Gerraren amaieran Hiroshima eta Nagasaki suntsitu zituzten lehendabiziko arma atomikoen garapenera bideratua zen Manhattan Proiektuan. Guztiarekin ere –eta ez gara hemen bestelako kontsideraziotan sartuko–, botere eta kapital amerikarrak (Eisenhower lehendakariak eta Ford Motor Company-k) asmatutako bakezale itxurako saria eman zitzaien 1957an, ematen zen aurrenekoa, uranio-235 delakoaren alderdi suntsikorrak lausotu eta ez-belikoak nabarmentzeko

tzeak ongi studiatzea. Dударik gabe, Altubetarrek baino lehen nehork ere etzuen euskararen syntaxia hoin arthoski ta sakonki ikhertu” (1962, 28). Ildo bereko balorazioa utzi zuen Villasantek ere 1975ean prestatutako *Erderismos* liburuaren edizioaren hitzaurrean: “Euskal Sintaksiari (Joskerari) buruz gure artean egin den azterketarik sakonena (eta kasik bakarra) dela esaten badut, ez dut uste egiatik oso urrun ibiliko naizenik” (in Altuberen *Erderismos*, Bilbo, V. orr.).

⁸ Honatx, Altubek emana, izenburuaren interpretaziorako gakoa: “En euskera soportamos los erderismos sintácticos más garrafales” (1919: 1920, 79). Ezin inondik ere, beraz, “jasan” egiten dena ekarpen edo mailegutzat har.

⁹ Ez dugu berriro hona ekarriko goian aipatutako deskalifikazioa (ik. Hidalgo 1996a, 28).

sortua izanik, *Atoms for Peace Award* izena zeramana, hain zuzen. Haren bidez ikuzi zitzaion Bohr-i, beraz, Los Álamos-eko laborategietatik, damutzerik gabe, ekar zezakeen orbana¹⁰.

Irakurle ohartua jabetu bezala, urte hartan bertan argitaratu zuen Seber Altubek *Laztantsu eta Betargi* “dokumendu eleberritua”¹¹, bigarren deituraren atzean ezkutaturik (erdi anonimoki, hortaz), Hegoaldeko irakurleari Los Alamos bezain urrutikoa egiten zitzaion euskal hiriburu galdu batean. Baionan, alegia.

Horratik –eta horregatik ere bai, ziur asko–, gurean ez da yankee-ena bezalako partzuego orban-garbitzailerik egon Altuberi ere estilo horretako errekonozimendu linguistikorik lutzazeko.

Horrezaz gainera, oroitarazi behar da azken urteotako eztabaida eta kritika –zigor– gehienen uholdea Mitxelenak Altuberen liburua kaleratu zenetik mende laurdenera idatzitako hartatik abiatu dela, salbuespenik gabe. Behin eta berriz hartu eta berretu dira oreretarraren hitzak eta, gorago adierazi bezala, egun ere ia ez dago euskal joskerari buruzko jardunaldirik non Altube ez den ukitua –inoizka larriki zauritua– ateratzen.

3.- Oharkabea bezala hasi zen Mitxelena inork espero ez zuen testu batean¹² bereak tartekatzen¹³, eta berehala egokitu zitzaion, mantso-itxuran hasieran, Altuberi txanda¹⁴:

¹⁰ Nekez eman ziezaioketen saria bonbaren guraso nagusi izan zen Robert Openheimer-i, ordurako, lar damututa, susmagarri ere bilakatua baitzen agintari estatubatuarrentzat.

¹¹ Horrela izendatu zuen A. Zelaietak lantxo, irizpide egokia baliatuz (1990, 4).

¹² “Arnaut Oihenart” izenburua zeraman artikuluan, hain zuzen.

¹³ “Besterik nuen ordean gogoan honetaz hasi naizenean”, idatzi zuen Mitxelenak atal hura irekitzean (1953: 1988, 53; jatorrizko testuaren ortografi egokitzapena edizio-apailatzaileari dagokio).

¹⁴ “Ez diot nik ezertxo ere kenduko Altube jaunaren lanari, bere gaian alderatzeko gauzarik ez baitu bestek egin” esanez ekin zion Mitxelenak saioari (1953: 1988, 54).

Zerbait esan daiteke horratik: bi gauza, berezirik egon behar luketenak, elkarrekin nahasten dituela, dena eta behar litzatekeena [...] Labur esateko, *Altube jaunak finkatutako legeak, euskarak gorde behar litzuzkeenak izango dira agian, baina ez euskarak gorde edo gordetzen dituenak. Ez dira, gebienez ere, euskararenak, zenbait dialekturenak baizik*. Eta dialektu horietan ere zeharo eta osoro betetzen ez direla esan beharrik ez (Mitxelena, 1953: 1988, 54; g.l.e.).

Onartu zuen Mitxelenak ez zirela Altuberaren oharkizunak amets-ordutan asmatuak: “lege horiek [...] herri hizkuntzarenak dira huts-hutsik”, zioen jarraian. Halere, aurrerago baieztatu bezala,

[...] *eguneroko hizkuntza* egunoroko gauzak adierazteko gai baldin bada, *ez da gai, joskera deus aldatu gabe*, poesia eta batez ere *prosa landurako*. Horretarako *bigunagorik behar da* (Mitxelena, 1953: 1988, 55; g.l.e.).

Funtsezko arriskua, beraz, herri-hizkuntzan betetzen bide ziren legeak literatur hizkuntzaren esparrura eraman nahi izatean omen zetzan.

Argi zeukan, izan ere, Mitxelenak “gure autoreak latinaren eredura ahalegindu zire[la] euskara egokitzen” eta “Europako hizkuntza landuek” bezala, euskarak ere “latinaren arabera antzaldatu” behar zuela bere joskera (Mitxelena, 1953: 1988, 53), literatur hizkuntzaren joskera, alegia. Eta areago, mendeetan zehar egindakoan ez zela atzera itzultzerik, eta ez zela inolaz ere onesgarria Villasantek, non eta Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldi larrian, klasikoen berrargitaratzeko planteatu zuen joskera-zuzenketa sistematikoa¹⁵. Alabaina, Mitxelenaren oldarra ez zen Villasante gaztearentzat izan, nahasmendu guztiaren eragile bide zen Altube zahararentzat baizik.

¹⁵ Villasanteren ildoko “Axularrek” euskararako proposatzen zutena, azken batean, errenteriarrek gogoko zukeen Kristo eta Maria Magdalenaren txistetik Zizek-ek ondorioztatutakoaren antzekoa izan zitekeen: “la curación directa de la herida del colonialismo (regresar con todas las de la ley a la situación precolonial) sería una pesadilla” (Zizek 2014, 30).

4.- Zurturik akaso, baina horrelako gaietan bipil samarra zitudien euskaltzain berriaren¹⁶ jazarpenaren aurrean ez zen isilik geratu Altube galendua, eta, aipatu eleberritxoak ontzen ari zela, ehundu zuen beheago ere mintzagai izango dugun erantzuna (ik. Altube 1956).

Hiru urtez gibelatu –behar izan?– zuen arrapostu hura¹⁷ ez zen, berez, ezeren mugarri bilakatu, 1949an, euskararen batasunaren premia ziharduela, aski garden utzia baitzuen arrasatearrak *Erderismosen* agertutako zurruntasun sintaktikotik asko-gutxi urruntzen hasia zela, baina balio izan zion hizkuntz adanismoari gauza zenbaitez ohartarazteko, beste hainbat gezurtatzeko eta, baita ere, esaldi luze eta menderakuntzazkoak osatzeko orduan behiala arbuiatutako formulak jadanik onesiak zituela jakinarazteko.

Euskal komunikabideen urria, frankismoak inposatutako kultur egoera agorra edota interes interesatuak tarteko, kontua da ez zela Altuberen aitopenaz geroztik ezer aldatu euskal unibertso akademiko urri hartan. Eta Altubek *Erderismoseko* Altube izaten segitu zuen, hau da, joskerari buruzko edozein jarduni ekin baino lehenagoko kritika-gunea, halabeharrezko abiapuntua, jopuntua, astintze-puntua. Bortitzegia zen-eta, agidanez, hark idazle eta euskaltzaleen artean sorrarazitako ortodoxia-uholdea.

¹⁶ 1951ko ekainean Azkueren ordezkotako euskaltzain izendatua, ez zuen Mitxelena joskerari buruzko ezer argitaraturik Altuberekin ausartu zenerako. Artean, prosaren problematika noraino ezagutzen zuen isla zezakeen euskarazko artikulurik ere ez zuen kaleratuta, urte hartako “Euskal literaturaren etorkizuna”-z gainera, esan nahi baita. Guztiarekin ere, itzal handia lortzen hasia zen euskalarien munduan eta haietakoren bat itzaropentsu ere azaldu zen errenteriarren prestakuntza akademikoa zela bide: “espero que ello (Altuberen 1956ko lana argitaratua egoteak, alegia) moverá al Sr. Michelena a hacer un trabajo *ex professo* sobre el tema, trabajo que creo podría ser de utilidad muy general para todos” (Villasante 1956, 18).

¹⁷ Pauen erbesteraturik egon zen Altube 1936tik 1958ra arte, frankismo bortitzenaren garaiko euskal mundutik eta letretatik nahi eta behar baino urrutiago.

Izan diren eta izan litezkeen eztabaidak atenperatzeko, bada, eta inoiz gure arrasatear jakintsuari *True Syntax Award* moduko dominaren bat eskain dakiontzat, ez legoke gaizki hark idatzi eta burututako *Erderismosen* gainekoez eta ondokoez ere oroitzea, gizabidezkoa baita inoren aburuz bekatari gaitz izandako kristau guztiei, Altube barne, oker egindakoez damutzeko aukera eskaintzea eta gaizpideetatik irteteko atakak zabalik uztea.

Hori dela eta, lar kontsideratu ez zaion azalpen eta idazlanen bat gehiago ekarri nahi genuke gaurkoan hona, besteren artean bizitzaren hondarrean argitaraturiko zerbait, itsuki defendatu omen zuena ez bezalakoa lirudikeen zerbait, hain zuzen, eta hainbeste eta hainbestetan antzeman eta leporatu nahi izan zaizkion hizkuntz errealitatearekiko itsukeriaren inpresioa eta ustezko egoskorkeriarena ahul eta leun liezazkiokeena.

5.- Lehen begiratuan, itxura manikeoa zuen jokaldiak: Mitxelenak ordura arteko literaturak jasandako kolonizazio sintaktikoa, halabeharrez agian, ontzat hartzen zuen bitartean –barka bekigu ezohiko lexikoa baliatzeko lizentzia!–, Altuberi ia-ia euskara egoera prekolonialerantz birbideratzeko nahia eta xedea egozten zitzaizkion.

Ezin igarri, dena den, hala ulertu zuen Altubek gaztigua. Zeren eta, garbi mintzatzeko, euskara jatorrizko zeritzon seneetik ez urruntzea –ez gehiago kutsatzea eta erromanizatzea– besterik ez zen islatzen bere proposamenean; eta ez inolaz ere, zuhurra baitzen oso, hizkuntzaren ustezko erroetara edota antzina omen zuen *logikara* itzultzea¹⁸.

Nolanahi ere, zehaztasunik eskaintzen ez zuela eta, kexu agertu zen arrasatearra Mitxelenaren kritika desaraukoarekin, ez zuen-eta taxuzko erantzunik itzultzeko biderik ikusten:

¹⁸ “Erderatiko itzen” auzi gisakoaren inguruan erakutsi irizpideak eta sensibilitatea lekuko (ikus artikulua honetako lehen oharrean esandakoa).

len' <zenbait dialekturenak baizik> eztirela legeok, esan digu, baiña dialektuok zeintzuk ziran eta ez tiran' ori ez; orain' lege beraien jatortasuna edo *leentasuna* dúdatzen du, baiña zeintzuk lege jator eta zeintzuk ez' au ez tigu esaten. Zalantza ontan' gaitz dét nik nere erantzute-lana (Altube 1956, 3).

Guztiarekin ere, handik hiru urtera burututako ihardespent-artikulu hartan garbi utzi nahi izan zion Mitxelenari ez zituela berak joskerari buruz zerabiltzan ideiak behar bezala ezagutzen, eta “an-or-emen, maiz agertu ditudalarik' bazukean, Mitxelena jaunak, motiburik asko nere egiazko iritziak ezagutze-ko” (Altube 1956, 8).

Nonbait, hausketak eta etenak lortzeko eskola zaharrekoiei oparitu ohi zaien *boutade* modura ulertu zuen Altubek adinaren arabera seme izan zezakeen hogeita hamazortzi urteko euskaltzainkide harena. Eta gainerako puntuetarako ere baliagarri zatekeen erantzuna eman zion oreretarrari honek, “geiegizko garbikeriaz ari zelarik”, leporatutako bat zela medio:

Nik, neronek, eztet inoiz esan edo aditzen eman olako geiegikeririk, “Euskal-joskera uts-utsa” aski degula' ez, baiña naikoa eztala bai, argi ta ugariki aditzen eman det (ibidem 7; g.l.e.).

Oldar hura baino pare bat urte lehenago, esaterako, argi utzia zuen arrasatear jakitunak edozein euskaltzale/euskalari –barka erredundantzia– kezkatuk *Euzko Gogoa* aldizkarian ongi irakurria behar zuen irizpidea, irizpide linguistiko bezain soziolinguistiko irmoa, nahiz eta, paradoxikoki nonbait, tratamendu “biguna”-ren aldekoa:

Erremediorik txukumenak, gozoenak... [testuinguruan ongi ulertu arren, jatorrenak eranstea saihestu zuen Altubek] eztira beti osasungarrien izaten; eta inoiz ere ez gurea bezela aurki litezken izkuntzeendako, au da, ERRI-IZKERA BERA ERE gu-reak baizen iltzeko arrisku aundian duten izkuntzeendako (1951, 10; g.l.e.).

Urtebete lehenago ere beste hau utzi zuen idatzirik euskararen inguruko arazoez kezkatuta segitzen zuten euskaltzale/euskalarien aldizkari berean:

Euskal-idazle batzuk, jakiña, nahi lituzkete erdalkeritzako oik guziz aienatu, baiña beti ezta errez, eta *ortan ere, kontuz, geiegikerigabe bear genuke ari* (1952, 7; g.l.e.).

Euskal idazle haiek aienatu nahi zutena euskal sintaxia malguagoa eta modernoagoa lortzeko planteatzen ari zen erdalkeria sintaktikoa baino ez zen, hau da, Altube bera baliabide pospositiboak (“atze-ezarkinak”) prepositibo (“aurre-ezarkin”) bilakatzeko egiten ari zen proposamena¹⁹, izan ere, nabarmen detektatua zuen kulturaren garapenak berak behartzen zuela euskal joskera tradizionalaren moldaketa:

[...] errikoi-izkeraz kanpo (au da, ikas-gai gaitzetan, sermoi aundikoietan eta abar) orrako oik baiño esakun askozaz luzea-goak erabili bearra izán oi degu, eta orduan sortzen zaigu (maiz, geu konturatzeke) euskerazko ‘atze-ezarkin’ oik ‘aurre-ezarkin’ biurtzeko jokera, lehia (1951, 8).

Edozein gisatan, aspaldi zehaztuta eta argitaratuta zuen “araudia” laburbildu zion oreretarrari, lehendik garatzen hasia zuen leuntze-bilakaera ere nabarmenduz²⁰.

Hirutara mugatu zituen euskararako funtsezko zeritzen joskera-legeak (“nagusienentzat emandako syntaxis-legeak” [Altube 1956, 3])²¹. Honatx laburtuta: “1. *LEGEA*.- Euskeraz, gal-

¹⁹ Kontua da “*erderaz* ‘aurre-ezarkin’ direlako ‘uztartiari’ (‘conjuntivo’) itzak, *euskeraz* geienetan ‘atze-ezarkin’ itzez ordezten ditugula” (1952, 7; g.l.e.). Halere, “*Euskerazko* ‘atze-ezarkin’ oietariko batzuk [...] ‘aurre-ezarkin’ tokia artzeko” aukera ematen dutela dio Altubek, “esate-baterako ‘... BAIZIK’ ordeez ‘BAIZIK...’” (*Idem*; g.l.e.).

²⁰ Hogeit bat urte beranduago Txillardegik adieraziko zuen moduan, “urteen buruan zenbait puntutan egileak berak *biguindua*” geratu zen Altubek hasieran harilkatutako irizpena (Larresoro 1974, 103).

²¹ Ez du horretan Altubek zalantzarik: “*Orra or euskal-syntaxisen* nere usztezko *iru lege nagusienak*. Eta irurok, eztira dialektuzkoak, *euskera osoarenak* baizik” (1956, 3; g.l.e.). Eta areagotu egiten du baieztapena: “Nire ustez

detze-itzek eta erantzute-itzek' syntaxis berdiña dute" (*Ibid.*, 4)²²; "2. *LEGEA*.- Au 'Oración subordinada' ta 'conjuntiva' direlakoena dégu. Oietan, *berbo-itza* ta esakunearen *gramatikatiar ezaugarria*' azken buruan jártzen ditugu" (*Idem*)²³, eta "3. *LEGEA*.- Oración subordinada direlako oik, batzen diranean' au da, bi, iru lau edo geiago berbo-itx, elkar kateatuta agertu oi diranean' berbo-itxok, erderak erreskadatu oi dituanex-itxulitara, goikoz bera, lerrokatu oi ditu euskerak" (*Ibid.*, 5).

Funtsezkoak, zurrinak eta bete beharrekoak omen hirurak. Gainerakoak, lehenago gogorxeago xedatuak, gomendiozko edo aukerazko "arau" bezala agertu zituen:

[...] euskal-joskerari dagozkion *iru lege* aiez gaiñera' beste *arau* batzu ere agertuak dítut nik, oik ez *beti jarraitu bearezko lege* bezela, *aukeragarritzko* baizik, ots, esakuneak argiagotu al izateko' on derizkiedalako baizik (Altube 1956, 7).

Leuntze gisako hura, halere, lotua bide zetorren Altubek lehendik erakutsitako zalutasunarekin. Haren adibide bat, esate-rako, *Erderismosen* bertan:

la construcción correcta" gauza bat irudi zekiokkeen berari, baina, esate baterako, "tratándose de *oraciones con miembro inquirido largo y complejo, aun en el lenguaje hablado se infringe con frecuencia la regla* establecida [...] (1929: 1975, 11; g.l.e.).

Baina ez zen hartan agortzen Altubere gerri-biguntasuna. Lerro zenbait gorago iruzkindu bezala, Mitxelenaren kritikaren aurretik ongi ohartua zen arrasatearra idatzizko joskera-egunertzaren premiaz:

[...] lege oien *aintxiñatasuna*' *jatortasuna*' agirian dégu" (*Ibidem*, 5).

²² Gogora bedi ez dabilela Altube esaldi kilometrikoez ari, laburrez baizik: "Lege orren ondorengo bezela' balio aundiko beste au dégu euskeraz: bi, iru, lau ta geiago itzeko esakunetan' importantzirik geineko itza' argi ta bereziki márkutzen degula" (Altube 1956, 4).

²³ Puntu honetan ere badirudi ez dituela esaldi luzeak ikusmiran, biziki harritzen baita Axularrek legea hain ongi betetzen duela ikustean "subordinada oitako esakune luze-luze bat"-ean (*Idem*).

[...] *idatz-euskeraz* [...] eztegu *aprobetxatzen 'aurre-argilari' jator; ugari ta balio aundiko oiek* ["zera", "zeragatik", "zerekozera", "baita", "baldin", "zerren eta" eta antzeko "aurre-argilari"-ez ari da Altube] *eskeintzen diguten aberastasuna* (1951, 9; g.l.e.).

Eta haren ustez, formula prepositiboak erabiltzeari ekinez gero, aurrerapauso eskerga egingo zuen euskarazko komunikazio idatziak:

[...] ideia bat itzez agertzeko, esakun luxe ta inguru-mari askokoa irun bearra degunean' ideia orren 'semantika' zentzuna (ots, -BAIZIK, -ERE, -LAKO ta abar gramatikakiek ezagut-arazten duten zentzuna) al-bait lasterren agertu bearra séntitzen degu; gramatikaki oik beranduegi ezartea, kaltegarri ésten degu, zerrren-eta, berandutze orrek, delako esakun luzearen semantika zentzun ura, illunpetan iraun-arazten baitu azkenerarte. Ordea, *gramatikaki oik, esakun luzearen asieran jarri ezkerro' esakun oien 'aurre-argilari'tzako opizioa egiten dute* (1951, 8; g.l.e.).

Hartara, eta llabur zurrean bada ere, zinez baieztatu daiteke aurretik agertua zela arrasatearra "joskera berri" horren sinbolo izan daitekeen *zeiñismo* delakoa²⁴ "zilegizko" bilakatzearen aldeko. Eta, zalantzarik gera ez zedin, ozenki aldarrikatu zuen hori guztia Eusko Ikaskuntzak 1946an burututako kongresuan, entzun nahi izan zuten euskalari/euskaltzaleen aurrean:

en la reproación de tal *zeiñismo* hemos ido demasiado lejos muchos *euskaltzales* peninsulares [sin exceptuar al que escribe estas líneas] (Altube 1949, 191hk).

Bekatua aitortzeaz –eta damutzeaz– gainera, ontzat, egokituz eta premiazkotzat jo zuen Altubek joskera eraberritzeko bidea,

²⁴ Altubek berak azaldu zuen *zeiñismoa* zertan zen: "La construcción gramatical a la que se le aplicó despectivamente el nombre de "zeiñismo" consiste en emplear los inquisitivos *Zein, Zer, Nor, Noiz, Nun...* no propiamente en su verdadera función indagatoria o interrogativa, sino en la llamada por algunos lingüistas *anafórica*, vale decir como pronombres o adverbios relativos, que caracterizan en las lenguas que nos rodean casi todas las oraciones subordinadas construídas con verbo conjugado" (Altube 1949, 191).

eta ofizialki jo gainera, nolabait esateko. Hainbat kide eta hizkuntzalari, orduko zein geroagoko, jabetu izan ez baziren ere.

6.- Gauzak horrela, ez lurdike, ustez, hain itsu, zurrun eta estu zirenik Altubek berrogeita bederatzigarren hamarkadaren bukaerarako harilkatua zuen proposamenaren hariak. Mitxelenaren kritikaren aurretik harilkatua zuenarenak, esan nahi baita. Baina egia da hirurogeita hamalau urteko agureari eman-dako lehen astinaldi hark ongi markatu zuela aurrerantzean harekiko erakutsiko zen jarrera²⁵.

Dena den, harrigarri samarra suertatu zen Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldian (1952an, hots, Mitxelenaren kritika baino urtebete lehenago eskainitakoan) zeharo Altubezale agertua zen Villasanteren posizionatze berria.

Inoiz azpimarratu izan den bezala, Altubek Mitxelenari *Euskera* agerkarian zuzendutako erantzunaren segidan –hurrengo orrialdean bertan, hain preseski– etorri zitzaion arrasatearrari bigarren masailekoa, sintaxia deskubritu berria zuen Villasante²⁶, nonbait Mitxelenaren hitzek liluratua eta lehenago

²⁵ Txillardegiren kritika ezitua ere jaso zuen Altubek handik gutxira bere aurrean irakurritako txosten baten bitartez (Bilboko *Euskaltzaleen Biltzarra* [1958/XII.13] Honela gogoratzen du Txillardegik egoera: “Han zen baita ere, deserritik itzuli berria, Sebero Altube ospetsua, ongi oroitzen naiz; bere 79 urteetan” (1958: 2004, 7). Eta honako hau irakurri zuen bertan: “Frase laburretan Altube’re n iritzia ontzat eman bide diteke [...] Baña luzeetan eta joskera jeneralean, estuegi delakoan nago. “Zeren” esate baterako literatura guztian zear arkitzen da [...] Beraz, ni “zeren”en alde nago guziz. Berdin ere, “ezen”, “bada” eta “baldin”en alde [...] “Zeña”, “zeñetan”, eta abar, ez dakit nik, egia esan, orren gaizki dauden [...] Beraz ontzat daukat Altube’re n iritzia frase laburretarako; baña, gañerantzean, berriz ere, Mendiburu eta Duvoisin artuko nituzke eredutzat” (*Ibid.* 37). Irakurleari geratzen zaion zalantza da ea, hitz horiek entzundakoan, Altube etsiturik atera zen aretotik, zeren eta, gainerako euskaltzain eta euskaltzaleek bezala, Txillardegik ere ezagunak izan behar baitzituen arrasatearrak hamabi urte lehenago (1946an) Baionako Eusko Ikaskuntzaren kongresuan irakurritako “La Unificación del Euskera Literario” (ik. Altube 1949) eta Mitxelenari pare bat urte lehenago *Euskera* agerkarian zuzendutakoa.

²⁶ Urte hartakoa da haren *Euskal gramatika llabur eta idazleen pusketa*

idatzitakoaz damutua, erdarazko “Comunicación del P. Villasante sobre la réplica del Sr. Altube al Sr. Michelena acerca de sintaxis vasca” oharrarekin desmarkatu zitzaionean:

En mi discurso de entrada en la Academia sostenía yo, en efecto, que el euskera literario, en cuanto a su sintaxis, debe guardar las reglas formuladas en *Erderismos*, pues daba por demostrado que este estudio meritísimo del Sr. Altube ha puesto en claro cuál sea la sintaxis propia del euskera. Mas confieso que la crítica del Sr. Michelena me hizo impresión, y desde aquella fecha hasta hoy, por efecto de observaciones propias y ajenas, mi actitud en este punto no es tal vez tan terminante como era entonces (Villasante 1956, 14).

Zilegizkoa zuen, nola ez, Villasantek jarrera berria, baina, begiruneak eta diplomaziak gorabehera, ez zuen euskaltzain zaharrarenak gaitzesteko argudio “liberal” orokorrik baizik pa-pereratu:

[...] y supuesto que *todos nuestros lectores* se hallan en condiciones parecidas, pues todos *aprenden a leer en escuelas castellanas y están familiarizados con la sintaxis de tipo románico*, la misma lucha por la vida ¿no nos debe aconsejar hacer algunas concesiones a esta dura realidad? [...] ¿*no estaría justificado el buscar aquella construcción que haga más fácil, inteligible y atractiva la lectura?* (*Ibidem* 16; g.l.e.).

Agerikoa zen “todos nuestros lectores se hallan en condiciones parecidas” argudiatzean berretsi egiten zuela hein handi batean Altubek eskainitako argazkia:

[...] bi mintzaira dítuzte belarrietan barrena sartuak: eskuikoan’ euskal-jatorra, guraso zaarretatikoa; ezkerrekoan’ erdal-izketan, eta batez ere erdal-irakurketan eta eskoletan kutsatutakoa. Or dúkegu gaitzaren sustraia (Altube 1956, 12).

bautatuak izeneko apunte-sorta. Badirudi, orobat, Altuberen auziarekin batera ekin ziola Axularren obraren “hustutze sistematikoa”-ri.

Hirurehun urte lehenagoko autore nagusiez (Axularrez, Oihenartez) mintzo bazen ere, ezagun zen harrezkero are biziagotua zuela faktore alienigenoen presioak –erre-presio frankista, tarteko– hizkuntza eta hiztun indigenoen itolarria.

Ur gardena bezain aratz zegoen, beraz, Villasante azalera-tzen ari zena: Altubereren “arauak” onak eta ziurrak dira²⁷, baina erromanizatuegi gaude euskaldunok –hori egiaztatzen ere Altube aitzindari²⁸–, eta egoera honek ez du atzera-bueltarik. Eta ondorioz, “[...] *creo que en la práctica, y en casos particulares, hay no pocas veces razones superiores que justifican el prescindir de ellas* [Altubereren arauak ari da]” (Villasante 1956, 18; g.l.e.). Zeren eta, “no creo [...] que el descuido o abandono de estas reglas sea mortal para el vascuence o que haya de traernos perjuicios irreparables. *Lo esencial es que se hable y se escriba en euskera*” (*Ibid.*, 17; g.l.e.).

Kontua da ea hartaz ere oso bestela pentsa ote zezakeen “legedia”-ren muintzat zuen *galdegaiari* buruz honako hau zioenak: “*¿Se podrían establecer reglas para determinar en cada caso cuál debe ser el inquirido entre los varios elementos que contiene una oración? Nos parece imposible*” (Altube 1919: 1920, 15-16; g.l.e.). Edota hain egoskorra ote zitekeen, aldi berean, lexikoaz ziharduenean *Erderismosen* korolario gisara idatzi zuena arlo sintaktikora ere luza zitekeela ez jakiteko:

[la] diferenciación injustificada y perniciosa entre el lenguaje literario y el popular [...] es un mal de consecuencias gravísimas por cuanto sirve de factor que multiplica la ya antes manifiesta indiferencia o alejamiento del pueblo euskaldún de la literatura euskérica” (1929: 1975, 300).

²⁷ “[...] considero muy valioso y muy provechoso para los escritores el estudio de *las reglas del Sr. Altube* y el *tomarlas como unas orientaciones generales, buenas y seguras*” (Villasante 1956, 18; g.l.e.).

²⁸ “Erdal-joskerak [...] gure belarri ta zentzua, gitxi-asko, kutsatuta” dauzka (1951, 8).

Altube errelatibista? Arauemaile? Nahasmenduz josia? Guztiak batera? Beharbada. Baina hari egindako kritikak eta desmarkatzeak ikusita, zinez pentsa daiteke kandela-argia itzaltzeko eta argi-indarra baliatzeko orena iritsia zela iruditu zitzaie-la haize berrietara emanago eta arnasbide gehiagoren premian ziren sektore euskaltzale gazteenei. Euskararen *status quaestionis* delakoa ez zegoen, haien ustez, intrantsigentzia antzu bilaka zitezkeenetara jokatzeko egoeran. Eta inor ez bazen ere luza-roan joskerari ekiteko behar beste adorez azaldu –ez Altube bezain adoretzu, behinik behin–, batzuei behintzat argia iruditu bide zitzaien zegokien lehen eginkizuna: moztu egin behar zen literatur tradizio gehiena baztertuta eta sortzen hasia zen literatur praktika xumea ere ustezko iragan garbi batean ainguratuta utz zitzakeen dinamika elkor oro. Medeapenezko biktima Altube bera izan behar bazen ere. Ustezko kanon altubetar ultraortodoxoen jarraitzaileen aurrean, apal-apalki “ni neroni barka-za-leago naiz olako erabagietan” (1951, 10) zioen Altube hura.

7.- Gure arrasatearrak alderdi teorikoan garai desberdinetan aldarrikatu zuena eta, batik bat, bestek antzeman/ulertu/bizkarreratu ziotena ikusita, praktikan landu zuen idazkerari begirada bat emanez osa liteke haren sentsibilitateari eta jokamoldeari buruzko ikuspegia, eta batez ere, narrazioa lantzean isuri zuen –itzuri zitzaion– joskerari erreparatuz.

Hartara, eta behar beste prebentziorekin bada ere, zinez ausartuko ginatke aurreratzen irakurle interesatuak, horrelakorik egokitu izan balitzaio Altuberi bederen, erraz asko eta eskumenka jaso zezakeela kontrasterako baliagarri zitekeen jokamodu ez-altubetarrik haren narrazio-lan luzeenaren orrialdeetatik, era normalduan eta eskuragarrian berrargitaratu baitzen delako *Laztantzxu eta Betargi* hura duela berrogei urte (1979an) Donostian.

Ordutik honako hizkuntzalaritza-lanek, ordea, ez dute, guk dakigula, horrelakorik islatu²⁹, akaso Altuberen narrazioa ezezagun gisara paseatu delako liburutegietako erakusleihatik zehar edo, kasurik okerreanean –aiher gatzazkio hemen aieru hori aintzat hartzeari–, gogoko hipotesiak elikatzekeo beti zai-gulako onuragarriago dohakaberen batenak kanon aldaezin bilakarazi lehendabizi, eta gero, behin eskura eta gertu izatean, hartaz nahi bezala eta geure gogara baliatzea.

Nolanahi ere den, lar irakurria izan ez den aipatu eleberri-
txoak badu esatekorik eta erkatzeakorik, batik bat Altubek ha-
siera batean teorikoki defendatu omen zuen gerruntzearekin
bat ez bide datozen moduak jorratzen direlako praktikan eta,
are garrantzitsuago dena, euskalki gehienen –guztien?– ohitu-
rekin eta literaturaren garapenerako ezinbesteko diruditen pa-
rametro malguagoekin hobeto ezkonduko lirakeen formula-
zioak aldarrikatzen direlako narrazio-modu horien bitartez.

Eta berariaz nabarmendu nahi genuke “praktikan” hitza, li-
teraturan era ageriko-faktikoan azaltzen direlako zinezko zail-
tasun linguistiko-narratiboak eta, aldi berean, joko-zelai horre-
tan erakutsi behar izaten delako aurren-aurrenik adierazpi-
deak errazteko hizkuntzaren plastikotasuna.

Maila konkretura jaitsiz, argi gera bedi lehendabizi Altubek
“istori” eta “irakurgai” izendatu zuen idazlan hau “egiazko ger-
taera latzen” narrazioa omen dela eta “azken gudatean Arrasa-
ten gertatutako albiste beltzak ditu[ela] gaitzat” (San Martín,
1979, 8). Are zehatzago, Arrasatetik “Donostiara eraman eta
hil zituzten haietako baten alargunarengandik ahoz jasotako
kondaira tristea, gudatearen lekukotasun latza” ei da isto-
rioaren mamia (*Idem*).

²⁹ Bidenabar oroitzekoa: euskal gramatikaren inguruko ikerlanetan siste-
matikoki eta trumilka murgilduko ziren profesionalen promozioak 1981ean
hasi ziren kaleratzen, Deustuko unibertsitatean lehendabizi (1976an Gotzon
Garateren gidaritzapean sortua baitzen euskal filologia espezialitatea) eta
1983tik aurrera EHUñ, Koldo Mitxelena zuzendutako lerroan.

Eta lekukotasun hori da, bai, zinez, irakurleak egileari eskertzen dion alderdi nagusia³⁰, eta ez horrenbeste beharbada teknika narratiboa bera, ahul samarra eta lar landu gabea da eta oro har.

Bestalde, formari dagokionez, Azkueren ildoko gipuzkera osotuan idatzia dirudi³¹, eta ez inondik ere istorioaren gertaleku eta egilearen jaioterri zen Arrasate inguruko hizkera partikularrean³².

Baina guztiarekin ere, Altubek narrazioan proposatu eta erabili joskera dugu hemen mintzagai eta haren adibide ustez argitzaile zenbait ekarri nahi genituzke ondoko lerrootara.

Altubek, izan ere, leporatu izan zaion intrantsigentzia ka-nonikotik urruti, ez zuen eragozpenik erakutsi joskera –dio-gun– malgua baliatzeko. Are gehiago: ematen du eleberritxo hartan argi utzi nahi izan zuela lehen idazki teorikoetan aurkeztutako sintaxi-arau antzeko haiek ez ziotela kezka berezirik pizten idazteari ekiterakoan eta, are gutxiago oraindik, na-

³⁰ Giro eta gertaera haiek ezagutu zituztenek ziotenez –tarteetan, aldi hartan hogeit urte zituen gure aita, jaiotzez arrasatearra eta bertakoez osatutako “Amaiur” batailoiko “Arrasate” konpainian jardun zuena–, zehatza eta errealitatearekin bat zetorrena zen Altubek fikzio gisara azaldu zuen hura.

³¹ Urte batzuk lehenago idatzi zuen legez, “si procede unificar la literatura euskérica a base [...] de un determinado dialecto, éste no puede ser otro que el guipuzcoano” (1949, 190). Hori bai, urte hartan bertan iradokiak (“parecen indispensables”) eta geroago erruz erabiliak (1956) zituen ezaugarri zenbaitez hornitutakoa zen baliatu zuen gipuzkera osotu hura: *-ek* (pluraleko ergatiborako), *bait-* (nahiz eta ahozko euskara islatu nahi duten esaldi laburrei eta mendeko perpausarik gabekoei ez dien partikula erabiltzeko tarte gehiegirik izuten...), etab., *zeñismo* delakoa baztertu gabe, jakina (ikus 1949, 190-hk).

³² Ez da, tamalez, behar beste mintzatu lan honek Altuberen egitasmo soziolinguistikoaren gauzaterako zeukan garrantziaz, eta ez da, ondorioz, behar bezala kalibratu ez idazlanaren balioa eta ez Altuberen ahalegin eskerga eta zinez “bisionarioa” euskararen batasunari dagokionez. Honetaz, gogora bitez 1946ko hitzaldian aletutakoak: “*hay que elegir desde ahora la forma euskérica que constituye el término de esa [...] unificación*” (Altube 1949, 198; g.l.e.). Ezberdintasunak ezberdintasun, hamar urte beranduago ekin zion Txillardegik Altubek planteatutakoen ildokoak ehuntzeari (ikus Txillardegik 1956a eta 1956b).

rrazioa era naturalean garatzeko orduan. Eta, hori zela bide, prest zegoela gerruntzerik gabe jokatzeko.

Ildo horretan, *Laztantxu eta Betargiren* irakurleari hasiera-hasieratik irudi lekiokoe Altubek Orixeren 1929ko *Santa Cruz apaiza* liburuko joskera-eskemen gisakoak baliatu nahi dituela³³ eta, erabili ere, eurrez darabiltzala³⁴.

Alegia, Altuberi maizegi bizkarreratu zaio perpausetan galdegaiaren “lege kanonikoa” omen denak eta aditzaren atzera-tzeak testuen ulergarritasunean egin ohi duten kaltearen hedapenaren errua eta, hori gutxi balitz bezala, baita faktore horiek hizkuntzari berez sorrarazten ei dioten adierazkortasun-murrizketarena ere. Guri, ostera, ez zaigu hain argi geratu Altuberenean –berdin hasierakoan zein geroagokoan– zeharo sakralizaturik atzeman nahi izan diren joskera-parametro horiek hain finko eta aldaezin dituenik³⁵.

³³ Espresuki ekarri nahi izan dugu hona Orixeren liburua Altuberenearekin kontrastatzeko, Mitxelenak arrasatearrari leporatu ziona –alegia, “Altubek kontutan hartu ez zuen oinarritzko partiketa [...] ez dira gauza bera, ezta hurrik eman ere, elkarritzeta, alde batetik, eta kontaketa bestetik, nahiz biak hizketa izan” [1977: 1988, 101]–, bertan atzematen omen zelako ongienik eta hurrengo lerroetan Mitxelenak adibidetzat hartu zuelako. Hau da, haren ustez “hizketa eta kontaketa arteko” bereizkuntza nagusietako bat dena –“hitz ordena ere bere gisakoa da kontaketa” [*ibidem*, 103]– Orixeren liburu horretako orrialdeetan aurkitzen zelako.

³⁴ Ohar bekio, halere, teorikoki ontzat joa zuen eskema prepositiborik ez zuela bere eleberrian baliatu. Herri hizkeratik hurbileko nahi zuen estilo narratiboak –lineala, laua eta esaldi laburretan garatuak– ez baitzuen “aurre-argilari”-ren premia berezirik.

³⁵ Ezin jakin berdintsu pentsatzen ote duen Hidalgo lagunak egun, baina gauza kurioso bat egin zuen Altubereren hipotesia hankaz gora jarri eta “mito kaltegarriak” deuseztatu nahi zituen artikulua hirukoitza garatzean (ik. 1996b). Izan ere, azken ordukoa zirudien ohar bat erantsi zion aurre-aurrean “gure tradizioko autore oro”-k egiten zutena –hau da, aditza esaldia-aren hasieran jartzea– erakutsi nahi zuen atalari, hain zuzen ere autore horien aipuen zerrenda baino lehen. Paradoxikoki, Altubek prosan –hemen komentatuko den eleberritxoan, hain preseski– islatzen duen jokabide ez-altubetarra nabarmendu zuen ohar hartan, hainbat adibide –printzipioz testuan bertan, autore eredugarri orekin batera joan zitezkeenak edo, agian

Baina baieztatutakoa haizeak eraman litzakeen irudipen hutsaletan gera ez dadin, eta Altuberen jokamolde hori azken orduko kasualitate hutsari egotz dakiokenez frogatzeko, eskutada bat adibide –kontra-adibide esatea, hobe– bilduko dugu jarraian.

8.- Honatx, bada, adibide-ahurtadatxoa, orrialdeak arin ikuskatu ahala jaso³⁶, exhaustibotasun- eta sistematizazio-asmorik gabe zerrendatua, baina, edozelan ere, Altuberi zor uste zaion erru-kitapenari ekiteko asmoarekin aurkeztua:

Maite zúan, bai, oraindik, aberats-jendea [...] (21).

Maite zítuan gurasoak [...] Artu zúan erabaki bat [...] Gau larri ura pasatu-ta, jaiki zán Laztantzxu, goizean-goiz, atera zán ixil-ixilik etxetik [...] (24).

Erosi zúan peridiku bat (izperringi bat), begiratú langintza-atalera, eta [...] (24-25).

Joan zan Laztantzxu, etxe artara, eta pozik ártu zuten[...] (25).

Asi zán beraz, gero, berekutan, pentsa-ta-pentsa (27).

Alako batean, eltzen da Betargi, argizeia baiizen zuri, mee, larden [...] Iritxi zán ezkon-bendizioa (31).

Batu ziran, guztiak, eskuz-esku aurreku-sokan [...] aítak, doiñutu zúan “Gernikako Arbola”-ren asiera, eta kantatu zúten, denak, txit gogoz [...] (32).

hobe, joan behar zuketanak– emanez. Oharrean jasotako jokalegeak ez bide zion, horratik, Altube birkalibratzera edota bilakaeraren bat izan ote zuen oldoztera bulkatu. Hori bai, barne-zauskadaren batek edo eraginda, honako esaldi honekin bukatu zuen oharra: “edo Altubek ez ditu bere erregelak gordetzen [eta begi-bistakoa zen ez zituela *Erderismo*sekoak betetzen, erantsiko genuke guk], edota ondorengook oso txarto ulertu dugu bere mezua. Agian bietarik” (Hidalgo 1996, 30). Agerikoa da dilema hura trilema bilakatzea besterik ez zitzaiola falta gure lagunari Altube “fundamentalista” birbideraturik ikusi ahal izateko. Ez zuen, damurik, horretarako saiorik egin eta lasai asko segitu zuen Altube *Erderismo*ekin identifikatzen eta joskerakritikak hari zegozkionetan eta ez zegozkionetan oinarritzen.

³⁶ Tokia aurretzeko, elkarren segidan emango dira orrialde bereko adibi-deok, lerroalde ezberdinetatik jasoak izan badira ere.

Itzarongo dét pazientziz [...] (33).

Egunak joan, eta egunak etorri, agertu ziran, beuren garaietan, Laztantzxu ama izateko seiñaleak [...] Geiagotu ziran, orduan, Betargiren kuttuntasunak (34).

Alako batean, agertu zán Betargi, eta ekarri zúan berriren bat edo beste (38).

Itzuli zán gizon ura [...] (56).

Iritxi zán, Laztantzxu, arratsaldean uts eman zioten toki triste artara [...] (57).

Joan zán mandatari ura kartaren billa [...] Pasatu ziran amarren bat miñutu [...] Eskuratu zúan, beraz, Laztantzuk, Betargiren karta (58).

Jaiki zán, Laztantzxu, goiz artan, sieretarako, eta joan zán “Santa María” elizara, meza entzutera ta komulgatzera. Komulgatu zanean, kukuldu zán eliza-baztartxo batean, eta asi zán otoitzetan (63).

Sartu zán, beraz, Laztantzxu, orain ere biotza taupadaka. Eman zión, ate-zaiari, sartzeko txartela [...] Irtén zán, Laztantzxu, kanpora (66).

Etorri zán aita. Etorri zán ama. Ekarrí zúten medikua... (73).

Ogeratu zúten. Eman zioten sendagarri bat... Eta geldí-geldí, ekarrí zúten konortera (74).

Iritxi zán, beraz, Laztantzxu, koiñataren aurrera. Besarkatu zúan maiteki (75).

Sutu zan, orduantxe, benetan, Laztantzxu (84).

Sartu zán eliza ortara, eta billatu zúan txoko bakar-zamar bat, eutsi-ezinezko negar-gura askatako (86).

Kontatu zien Laztantzuk, bere istori negargarria (87).

Erori zán bonba aundi bat, baña Plaza artara éz [...] (92).

Joan zán beraz, Laztantzxu, beste erri batera (94).

Joan zán, beraz, Loyolara, Jesuítá ori ikusi nairik (95).

Etab., etab.

Urliak, sandiak edo berendiak diotena diotela, nabaria da aditza perpaus-burura ekartzeko arazo gehiegirik ez duela Altubek³⁷. Areago: ezin ahanz daiteke 1919ko *De sintaxis euské-rika* delakoan ere, esaldien adierazkortasun-premia zela eta, gaitzetsi eta debekatu bainoago, aholkatu egin zuela jokamolde hori hainbat perpaus-motatan³⁸: “Esta clase de oraciones (sobre todo cuando su flexión verbal es de forma perifrástica) parece que resultan más expresivas comenzándolas por el verbo” (1919: 1920, 93).

Gehienbat horretan jarri dugu hemen lupa, baina, joskeraren jolasa dela eta, bistan da berdin jar dezakeela autoreak hankaz gora galdegai delakoaren “araua”³⁹ zein *egin* aditza beharko omen luketen perpausak hura gabe utzi.

Zenbateraino, beraz, segi daiteke esaten eta berresaten “beharbada hori izan zen *Altuberen buts nagusia: ez ikustea* esaldi laburretan operatibo denak ez duela zentzu handirik osagai askoko esaldi luzeetan”? (Sarasola 2016, 127; g.l.e.). Mitxelena, behintzat, beste zerbait pentsatzera iritsi zen urteetan barrena: “galde-erantzunei dagozkielako soil-soilik, Altube-ren legeak

³⁷ Interesgarria litzateke Altuberen prosa ere estatistikoki aztertzea, usteak uste, erraz asko gerta bailiteke, Axularren aditzaren guneaz azaldutako emaitzak ikusita, klasiko urdazubiarra baino “aditz aurrera zaleago” izatea gure arrasatearra. Honatx Hídalgoaren ikerketaren ondorio gisakoa: “Axularrak bada bi ezaugarri bederen erakusten ditu bere hitzen antolamenduan. Batetik, tradiziozko beste idazle guztiak bezalaxe, Axular ere ez zaie batere ongi lotzen Azkue-Altuberen preskripzio apokrifoei, salbu aditzaz amaitzen dituen esaldietan. Bestetik, nolana, uste dugu aitortu behar zaiola Axularri berezitasun bat *begoaldeko idazle gebiengoaren aldean*, Axular [...] *hauek baino nabikoa aditz atzera zaleagoa gertatzen delako*” (Hidalgo 1999, 163).

³⁸ Honako perpaus hauetaz ari da “Advertencia final” delakoan: “las oraciones *neutras*, en cuanto á la forma sintáctica, son en euskera las *puramente afirmativas*” (Altube 1919: 1920, 93).

³⁹ “Laztantzuk, osabari, ematen zizkion, karta ortan, beste enkargu txikitxo batzuk ere [...]”, “Aingeru-k egin zituan, lenbizi, Laztantzuren enkarguak, zeatz eta zuurki” (26), “Aingeruk, jarraitu zion, pazientziz, asitako lanari [...] Azkenean, atera zúten arako, aitak, eragozpen aundirik egin etzion autu ura ere [...]” (29), etab.

elkar-hizketarenak dira: Benveniste-ren harako ‘*présente* instance de discours’ hari datxezkionak” (1977: 1988, 101).

9.- Baina Altubek 1957ko narratiba-lan horren bidez erakutsi zituen erabilera “ez-altubetarrez” mintzatu bagara ere, komenigarria litzateke ez ahaztea “lege”, paradoxikoki, ez-kanoniko horietako zenbait Altubek *Erderismos* liburuaren abiapuntu izan zuen *De sintaxis euskérica* izenekoa idatzi zuenarekin uztartuta daudela. *Kanon* delakoaren “historiaurrean” aletuak, bada.

Hona, esaterako, aditza perpausaren burura eramateko zilegitasuna onartuko lukeena galdegaia “en la cualidad afirmativa del verbo” daramaten esaldietan⁴⁰:

§43. Hay una clase de períodos de carácter narrativo muy usuales en los que aparecen oraciones, la mayoría de ellas con carácter de afirmativas, como formando una serie que termina generalmente con una oración precedida de la conjunción *eta* (Altube 1919: 1920, 26).

Estas oraciones, en euskera, caracterizan a su verbo, si es sintético, por medio del adverbial *ba* y si perifrástico, por el acento equivalente (Altube 1929: 1975, 60).

Horretan, beraz, gakoa: “los compuestos o perifrásticos lo prefijarían también si fueran conjugados sintéticamente” (1919: 1920, 26 eta 1929: 1975, 60).

Adierazi bezala, konstatazio horrek zabalik uzten zion perpausari aditza burura eramateko bidea. Pasarte narratiboetan ohikoa zen/den bezala, erantsi beharko litzateke segidan.

Eta halaxe jokatu zuen Altubek aukera izan zuenetan, bai idazteko orduan *–Laztantxu eta Betargi* narrazioko adibideak lekuko-, eta bai “legeak” proposatzean ere. Azken hauen artekoak lirateke, esate baterako, *De sintaxis euskérica* eta *Erde-*

⁴⁰ Zertxobait aldatua dator lerroaldearen azala *Erderismos* liburuan (ikus Altube 1929: 1975, 59-60).

rismos lanetan zerrendatutako ereduazko adibideak, guztiak literatur autoritateen obretatik atereak⁴¹. Lehen sortatxoa, hemen berariaz laburtua, Txomin Agirrerren *Kresalatik* jasoa da⁴²:

Bagagoz, bagagoz, illunabarrean, potin txiki baten lau laguntxu, berdeletan, Orioko aurrean. [...] asi giñan etxeruntz [...] Jaso génduan triketa [...] brast, joten gáitu aize bumbada gogor batek [...] Alan be urten génduan urazpitik [...] Inguratu giñan, igarian, popazgora egoan txalopara, ta itandu géuntzan alkarri...

Eta literatur autoritateekin segituz, Bustintzaren *Abarraketik* jasoak erantsi zituen lehendabizi:

Jagi zán au suge zitalaren amorruez, edegi éban aiztua, ta...

Eta Prai Bartolomerrenak gero:

Batoz lagun bi, iru edo laur errijan biar dan gauza bat saldutera. Alkar artuten dábe guztiak... Ta ekarten dábee erosi biar dabena [...]

Erraz atzeman daitekeen bezala, Altubek sintaktikoki ulertu eta teorikoki onetsi egin zuen esaldi mota hori. Eta ez zuen, inolaz ere, arbuia edo *kanonetik* at utzi.

Besterik esatea Altuberen joskera-planteamenduari iruzur egitea da.

10.- Hortaz, zilegizkoa da pentsatzea finko bezain malgu utzi uste zuela Altubek zernahitarako prosa sortzeko eta erabiltzeko oinarri teorikoa. Berdin galdegaiari, aditza perpausburura eramateari edota *zeiñismo* izenaz bataiatutako formulen erabilerari zegozkienetan.

⁴¹ Adibideok berdintsu agertzen dira 1919: 1920, 26-27 eta 1929: 1975, 60 orrialdeetan. Adizkien azentuak, ordea, *Erderismosen* baino ez dira azaltzen. Aditzen nabarmentzea, bestalde, Altuberena da.

⁴² “Es uno de los muchos [lerroaldez ari da] preciosos que la novela *Kresala* contiene en cuanto à la sintaxis euskérica”, dio Altubek (1919: 1920, 27), eta berdintsu handik hamar urtera: “Es uno de los muchos sintácticamente muy correctos que contiene la novela *Kresala*” (Altube 1929: 1975, 60).

Eta halaz ere, berriro leporatuko balitzaio haren teoria “kanonikoak” ez duela horrelakorik onartzen, hark erakutsitako literatur praktika narratibora jo genezake berriro ere, izan litezkeen zalantzak behingoz argi uzteko. Narrazio zaharrago batera oraingoan, joskerari buruzko teoria guztiak agertu baino lehenagoko batera hain zuzen, hau da, 1912an *Euskal Esnalean* kaleratu zuen –Altube setatsua ageri!– *Betargichu* ize-neko “ume-upiñ” laburrera.

Hiruzpalau adibide nabarmen baino ez, beraz, Altubek defendatzen omen zituen lege kanonikoak orduan ere aise saihesten zituela erakusteko⁴³:

Aor bada, orren ikastuna zalako, emon ei-eutsan, beñola, Betargichu ri, beronen irakasleak, sekulako liburu politen bat (243).

Igo neutsan barriro neure zaldi-egalariari bere bizkarrera [...](245).

Alako baten begiratu neban beekaldera eta lur guztia illunpean agiri zan [...](246).

Onetan giñerautsala, asi zan neure globochua apurka-apurka ichukinduten [...] Egin neban elaichuak esandakoori eta [...](247).

Horren guztiaren aurrean, zaila bide da Altuberen *kanonaz* eta haren estutasunaz, hersturaz eta hertsapenez mintzatzea, eta are zailago oraindik Altuberen izena *Erderismos* hutsarekin identifikatu nahi izatea. Berendiak dioena dioela, esan nahi baita.

Eta Altuberen jarrera argiago ikus dadin, Mitxelenari eman-dako erantzunaren amaiera ekarri nahi genuke, azkenik, korolario gisara. Hain justu ere, honako hitz garden hauek idatzi zituen 1955eko uztailean, hurrengo urtean, hogeita zazpi urteko Txillardegik berak ere “Karta idigia” argitaratu zuen *Euske-
ra* agerkariaren ale berean agertuak:

⁴³ Ez da hemen jasoko maiz darabilen *ba-* partikuladun adizkiekin hasitako perpausik.

Irakurgai oietan (*La vida del Euskera, La unificación del Euskera Literario* eta *Erderismos* lanez ari da, batik bat), *argi ta proba* ugariz erakutsia dët, gaurko exkax ontan laburki egiztatu nai izan dedana: “*Euskeraren bizitzari ta aurrerapideari dagozkion lanetan’ ni enaizela lege-estu zalea*” (Altube 1956, 13; g.l.e.).

Eta jarraian,

Itz garbiak eta gramatika-lege zaarrak’ maitatu, obe-etsi ta iraun-arazten alegindu, erri-izkeran aski indar duten artean; baiña erri-izkerak utzi ta aldatu baditza’ ortan ere obeitu, geien-geienetan beintzat, erri-izkerari (*Idem*).

Bai mintzatzeko, bai idazteko eta bai kultur hizkuntza garatu ahal izateko, herri-hizkeran ikusten zuen Altubek euskara onaren iturburua, eredia, inspirazioa, baina ez “araudia”.

Azkentza

Erantzunik gabe geratuko den galdera da ea uzkurtu eta atzera jo egin ote zuen Altubek sentontasun betera iristean eta, batik bat, euskara –euskaldunak– gero eta kolonizatuago eta deuseztatuago geratzeko arriskuaren izuak jo zuenean, bizi bitartean ez baitzuen mugimendu itxaropentsurik antzeman inguruan⁴⁴.

Laurogeita bat urterekin joskeraz argitaratu zuen azken artikulan adierazi legez,

Berorixe esán dezakegu gure sintaxis-lege guziez ere; oik galtzeak’ euskal-izkuntzari, zeaztasun ta argitasun bideak guziz illúntzen dizkio (1960, 332).

Handik, noski, bizpahiru lerroko hilburuko gisakoa:

⁴⁴ Gogoangarria 1946ko Baionako hitzaldi ospetsuan, euskararen batasuna lortzeko ezinbestekotzat jotzen zituen neurriak zirela eta, jaurti zuen ohar eszeptikoa: “Desde luego necesitaría el apoyo entusiástico de entidades vascuistas tales como la *Sociedad de Estudios Vascos* y la *Academia Vasca* (*si es que algún día resucitan*)” (Altube 1949, 204; g.l.e.).

[...] euskera, *gauza sakontxoak* esateko, eta batez ere, idazteko gai ta baliozko egin nai baldin badezagu' syntaxis-legerik jatorrenezko argiz eta zeaztasunez ornitu bearra dúkegu! (*Idem*).

Eta, beherago, aholkua:

Euskal-syntaxis legeek [...] jokera ortantxe áurkitzen dute giltza ta ederpidea. Alegindu gáitezen, beraz, legeoi eusten, iraun-arazten, indarra ematen (*Ibid.* 333).

Gerta ala gerta, gaur hemen planteatzen zaigun kezka da-goeneko ez da ea "Altuberen kanona" gabe garatutako joskera zenbateraino den baliagarriago edota noraino jotzen duen hobekixego gure sen erromanizatuan ("todos nuestros lectores se hallan en condiciones parecidas", zioen Villasantek), baizik eta zenbat denbora beharko den esaldi luzeetarako egokiak diren egitura askeak ahozko mintzairara igaro daitezzen eta bertan, perpaus laburretan ere, definitiboki finkatuta gera dakizkigun. Edo, bestela esan, Altuberen syntaxi-legeren bati heldu beharko ote zaio inoiz "Miren, ez ukitzea hori, ze da nirea!", "daukat jostailu bat zuretzat", "egoten da ambiente bat oso guaya", "dago afaltzen bere amarekin" bezalakoen aurrean⁴⁵? Zeini? Galdegaiarenari? Aditza buztanera –barka!– eramatearen aldekoari? Besteri? Bakar bati ere ez? Latza erronka!

Baina hori guztia, esan beharrik ez da, gure klasikoez mintzatzeko gonbita egin didan adiskideak antolatatu jardunaldietan eztabaidatzeko solasbide izan liteke lasai asko.

Bukatutzat eman beharko, beraz, jadanik liskar-hasiera izan daitekeen hau.

Izan ongi eta bizi hobeki!

Ongi izan eta hobeki bizi!

Aramaion, 2019ko martxoaren 13an

Patxi Salaberri Muñoa

⁴⁵ Azken egunotan ETB1eko saioretatik eta pertsona –haur zein nagusi– euskaldunen ezpainetatik jasoak.

Bibliografia

- Altube, S., 1912, "Betargichu (ume-upiña)", *Euskal Esnalea* 43/44, 243-247.
- _____, 1919: 1920, *De sintaxis euskérica*, Donostia.
- _____, 1929: 1975, *Erderismos*, Bilbo.
- _____, 1934, *La vida del euskera*, Bilbo.
- _____, 1936, "Más sobre la vida del Euskera. Berriro Euskeraren bizitzari buruz", *Euskera* (monografiko gisara kaleratua).
- _____, 1949, "La unificación del euskera literario", *Eusko Jakintza* III, 181-204.
- _____, 1951, "Erderakadarik txarrenak (IV)", *Euzko-Gogoa* 11/12, 8-10.
- _____, 1952, "Erderakadarik txarrenak", *Eusko-Gogoa* 11/12, 7-10.
- _____, 1956, "Literatur-euskara (Sobre sintaxis vasca)", *Euskera* 1, 3-13.
- _____, 1957, *Laztantsu eta Betargi*,
- _____, 1960, "Euskerari buruz", *Euskera* 5, 329-330.
- Azkue, R.M., 1933, *Gipuzkera osotua*,
- Hidalgo, B., 1996a, "Hurbiltze bat euskal hitz-ordenaren tradizioari" *Fontes Linguae Vasconum* 71, 21-43.
- _____, 1996b, "Euskal joskeraren mito kaltegarriak (eta III). Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran", *Hizpide* 37, 23-31.
- _____, 1999, "Axular euskal hitzen ordenaren historian", *Lapurdum* I (zenbaki berezia), 143-170.
- _____, 2002, "Hitzen ordena esaldian", *Senez* 25 (orain: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20021201/hidalgo>)
- Krutwig, F., 1962, "Euskararen ethorkizuna", *Egan* 1/3, 19-33.
- "Larresoro" (Alvarez Enparantza, J.L.), 1974, *Euskara batua zertan den*, Arantzazu.
- Mitxelena, K., 1953: 1988, "Arnaut Oihenart", *Euskal idazlan guztiak V. Literaturaren inguruan II*, Donostia, 35-57.
- _____, 1977: 1988, "Euskal hizkera eta euskal neurkera", *Euskal idazlan guztiak IV. Literaturaren inguruan I*, Donostia, 91-105.
- Reclus, E., 1867, "Les Basques. Un peuple qui s'en va", *Revue des deux Mondes*, 1867.03.15, 319-340.
- Sarasola, I., 2016, *Bitakora kaiera*, Donostia.
- "Txillardegi" (Alvarez Enparantza, J.L.), 1956a, 'Ez bat eta ez beste', *Egan* 3-4 1956, 44-49.

- _____, 1956b, 'Karta idigia', *Euskera* I, 245-250.
- _____, 1958: 2004, "Batasunerako bidea", *Euskararen aldeko bo-rrokan*, Donostia, 25-45.
- Villasante, L., 1956, "Comunicación del P. Villasante sobre la réplica del Sr. Altube al Sr. Michelena acerca de sintaxis vasca", *Euskera* 1, 14-18.
- Zelaieta, A., 1990, "Bilbao eta euskal literatura. 4, Altube-ren *Laztan-txu eta Betargi-n*", *Bilbao* 26, (1990.02.27), 14.
- Zizek, S., 2014, *Mis chistes, mi filosofía*, Barcelona.